



**Ramon Unanue zenaren omenez.** Buruntzazpi taldeak antolatuta, Atsobakar auzoan Ramon Unanueren I. Oroimeneko ziklokrosa egin zen igande goizean kadete eta jubenil mailatan. Unanue zendu berria Buruntzazpi prestatzailea izan zen eskolaren sorreratik bertatik eta oso zuen maite ziklokrosa. Normalean errepideko denboraldia prestatzeko erabiltzen dituzte ziklokrosoko lasterketak Buruntzazpi txirrindulariek, baina emaitza onak lortzen dakitela ere erakutsi zuten asteburuan Atsobakarreko barruti lokautuan. Indar handia behar izaten da pedalei eragiteko gurpilak, kateak eta galgalk adarxoz eta lokatzet zikinduta daudenean. Argazkian duzuen Buruntzazpi Xuban Errazkinek irabazi zuten jubenil mailan eta Arrikruz taldeko Julen Umeretz eta Ruben Roqueñi sartu ziren atzetik. Nesken elitiko kategorian beriz, Naia Alzola izan zen garaile eta podiuma Lierni Lekuonak eta Maite Murgiak osatu zuten. Kadete mailan Jon Ander Musituk irabazi zuten Iker Imaz eta Xabier Murgiondoren aurretik eta neska bakarra ateratzen kategorian honetan, Aroa Gorostiza. Denera 55 txirrindulari zipiritzindu ziren lokatzetan asteburuan estreinatuta berri den proba jendetsuan. Sari banaketan Ramon Unanueren anaia Iñaxiok lore-sorta bat jaso zuten Xabier Carbayeda antolatzailearen eskutik. Ez zen gogoan izan zuten pertsona bakarra izan, Rufino Murgia Euskalteleko masaje-emaitza zena ere omendu zuten Maite Murgia alabari lore-sorta emanaz. Goian beude.

### 3 GIZARTEA

#### Baserrietatik erdigunera jaisteko zerbitzu berezia

Lasarte-Oriako Udalaldu Behemendi elkartearekin elkarlanean Bidez Bide zerbitzua jarri du martxan. Baserrietan bizi diren pertsona adindua eta mugikortasun arazoak dituztenei zuzendutako zerbitzu berria da. Gaurtik hasita Lasarte-Oriara jaistea ahalbidetuko die.

### 4 MERKATARITZA

#### I. Pintxo Lehiaketak harrera ona izan du

Aterpea Merkatarien elkarteak Udalarekin batera, Lasarte-Oriako I. Pintxo Lehiaketa antolatu dute asteburuan. Hamabi tabernetan pintxo bereziak dastatzeko aukera izan dute herri-tarrek. Hauek izan dira ere epaile, pintxo onenak bozkatu dituzte eta astean zehar jakingo da zein den irabazlea.

### 5 GIZARTEA

#### Jalgunek festa handia egin zuen larunbatean

Dantza, musika eta koreografiak izan dira protagonista larunbat arratsaldean Jalgunek egindako jaialdian. Desberdink izateaz harro eta lotsak gaindituta, sekulako festa antolatu zuten Manuel Lekuonako areto nagusian lehenik eta Okendon ondoren. Kolore eta irribarre festa izan zen.



CARNICERIA  
**ARANZABAL**  
HARATEGIA

Etorri gugana eta probatu gure kalitate!

**Behi xerra 9,95 /kiloa. Kilo batekin, oilasko bat OPARI**

Jaizkibel plaza II  
20160 Lasarte-Oria • Tel.: 943 365156

Bideo Lagunak  
**TIEEN 21**

gure Facebookeko jarraitzaileekin artean, erabili berria! Auzo zuzendutako dugu

ZOZKETA OSTIRALA 13

www.bideo lagunak.com

## Adituak dio



Oscar Aranda  
Sexologoa

## Konponketak

Dagoeneko irekia dago sexu informazio eta aholkularitza bulegoa. Batzuk pentsatu dute; zertarako balio du horrelako zerbitzuak? zein asmo izango du? nori dago zuzendua? zer lortu nahi du?...

Bizkaiko herri bateko kultur teknikariak berdintasun teknikariari sarritan sexu informazio bulegoak ez zirela garrantzitsuak esaten zion; konponketak baino lehen ligatzea zela egin behar zena eta gero jarraian "elkarrekin konponduko genuke".

Hain errezia balitz bizitza eta are gehiago bizitza sexuala ez ziren noski garrantzitsuak izango horrelako bulegoak. Baina bakoitzak bere bizipenak, bere bizitza, biografia, iragana, arazoak, zailtasunak eta kezak ditu sexualitatearen inguruan eta ondorioz guzti honen erantzunak ez datoz idatzirik inongo liburuetan edo filme batean edo koadrilako beste baten sexu biografian. Batzuetan jarrerak eta jokamoldeak kopiatuz gero, konponketak eta konponbideak iritsiko direla edo, hemorroideak bezala, isiltasunean pairatzea tokatzen zaigula (hemorroideak bezala) uste dugu. Baina ez da horrela, ez onerako ezta txarrerako ere.

Sexualitatea anitza da. Ez da penetrazioa edota zomorroak kutsatzeko arriskua soilik; Amodioa eta desamodioa da, sexu orientazio edo identitatea, bikote arazoak, zergatik galdu eta eskuratu da desioa, zergatik aztoratzen gaituzte hainbeste horrelako kontuak... Guzti honek gure sexu biografian parte hartzen du eta adin bakoitzean zalantza edo kezka ezberdinak sortzen dizkigu.

Horretarako dago sexu informazio eta aholkularitza bulegoa; prozesu honetan, ibilbide honetan, gure sexu ibilbidean, tresna gehiago eduki, laguntzeko.

## Sexualitatea

Aurreko astean Osasun Jardunaldien baitan "zahartzea eta afektibitate, pozez beteriko sexualitatea" hitzaldia eskaini zuen Aingeru Mayor sexologoa. Honetara adineko nahikoa jende hurbildu zen baina aurreko egunetako hitzaldiak alderatuta erdia edo gutxiago izango ziren eta horien artean gehiengo emakumeak.

Zergatia kalean emandako iritziekien bat eginez, adin batek aurrerako jendearentzat gaia oraindik tabua delako izan daiteke?

Sexualitatea gai zabala da ez da bakarrik penetrazioa edo harremanetan gaixotasunak kutsatzeko arriskua, amodioa eta desamodioa ere bada, sexu orientazio edo identitatearekin kezak, orokorrean bikote arazoak adibidez zergatik galten da batzuetan desioa, halako egorek gure bizitzan duten era-

gina handia da eta duten garrantzia aitortu behar zaie. Oraindik jende askorentzat sexu arazoak etxean gortzekoak dira, ez dira logelatik ateraten, bikotearen inimitiatetik.

Ez zaigu burutik ere pasatzen espezialista bat gehiago dela sexologoa eta gure osasunaren parte bat gehiago dela, zaindu beharrekoa.

Egun gaztek informazio asko daukatela diote, agian gehiegi, eta horregatik adituek diote norberaren kezak ez dituela ez liburu, bideo edo lagun koadrilak asetzen, beharrezkoa da nora jo jakin eta edukitzea. Sexu heziketan aurrerapaso asko eman dira eta ikastetxe gehienetan jorratzen bada ere, etxeetan beste kontu bat da kalean alipatu ditugeneran arabera eta agian helduenei balia zaie gazteek duten informazio teoriko extra guzti hori.

## Hitz eta pitz

## Uste duzu sexuaz nahikoa dakigula?



Emiliano Muñoz

Gaur egun lehen baino askoz informazio gehiago dugu orokorrean. Egun bilobarengatik dakit eskolan sexua gaia lantzen dutela ia txikitatik eta iruditzen zait hala izan behar duela. Ahalik eta gehien jakin behar da gero norberak erabakitzeko ahalmena izan dezan. Gure garaian ezzer gutxi genekien eta oraindik asko dugu ikasteko. Tabua zen esparru askotan.



Mila Ituarte

Nik uste dut lehen baino informazio gehiago dagoela baina hala ere ezjakintasun handia dago. Eskolan bai lantzen dute eta etxe askotan ere gaia naturalki hitz egiten da. Orokorrean gazteagoak garenak irekiak gara. Baina oraindik jende helduak tabua izango balitz bezala dauka sexua. Ez dute horren inguruan ere hitz egiten eta landu beharreko gaia dela iruditzen zait.



Laura Moreno

Egun daukagu informazioa nahikoa dela iruditzen zait. Hori bai heltsen garen neurrian, gehiago dakigu, gure gorputza hobeto ezagutzen dugu eta zer gustatzen zaigu erabakitzen dugu. Hala ere, gure bizitzan sexualitatea sexu harremanetik haragotako zer bait zabalgoga dela iruditzen zait eta landu beharrekoa. Egia da, helduek oraindik gaia ez dutela normaltasunez hartzen.



Lourdes Arizmendi eta Ainhoa Faustino

Gazteen artean informazio nahikoa dagoela iruditzen zaigu. Helduek nahiz eta eskolan ez landu esperientziatik dagoeneko informazioa nahikoa ere eduki beharko luketela iruditzen zaigu. Egia da aitona-amonen kasuan, eta guraso batzuekin oraindik ez dela sexuaz modu naturalean hitz egiten. Gazteen artean bai hitz egiten da.

## Iruditan

## Sexu Heziketa



Herrian hainbatetan egin dira sexologiari buruzko hitzaldiak.

Sexua heziketa eskolako lehenengo urteetatik lantzea pentsa ezina zen duela hamarkada batzuk gurean. Eliza katolikoak heziketa sistema eduki zuen eragina dela eta ezzer gutxi jakituen zuten gazteek harreman, gaixotasun etabaren inguruan. HIESAK 80. hamarkadan izan zuen zabalkundearekin, gaia eskolotara eramaten hasi zen. Sexualitateaz mintzatzeari normaltasuna eman nahian, txikitatik heziketa sistema txertatu da nahiz eta oraindik egiteke asko dagoen adituaren arabera. Belaunaldi helduenentzat antolatzen diren hitzaldiak beharrezkoak dira oraindik.

## Diruz laguntzen duten erakundeak

## Babeslea



LASARTE-ORIA  
UDALA

Txinbarriak ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

## Laguntzailea



GFko Kultura eta  
Euskara Departamendua

## Argitaratzailea:

Tiatun Kultur Elkartea  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria

943 366 858/943 371 448

C-20407557

Legeko gordailua:

SSS13/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7800

## txinbarri

## Eredakzioa:

Nerea Ezpigitze, Maider  
Azumendi, Jon Altuna E.

txinbarri@txinbarri.info

## Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola  
publizitatea@tlatun.com  
administrazioa@tlatun.com

## Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa,  
Ane Labaka, Maitu Arri, Aiger  
Odiroza, Jone M. Hernandez,  
Oihana Salazar, Pako Azpitarte,  
Edu Galardi

## Informazioak:

Xabier Amadoz

## GIZARTEA

## Bidez bide zerbitzua martxan

*Baserrietan bizi diren pertsona adinduei edo mugikortasun arazoak dituzten herritarrei zuzendutako garraio zerbitzua da*

Lasarte-Oriako Udalak Behemendi elkartearekin elkarlanean Bidez Bide zerbitzua jarri du martxan. Baserrietan bizi diren pertsona adindu eta mugikortasun arazoak dituztenei zuzendutako zerbitzua da. Lasarte-Oriara jaiste ahalbideratuko die.



Bidez bide garraio zerbitzua landa eremuko herritarren onurarako izango da.

Nerea EZIZARRI

Ostirala eguerdian Lasarte-Oriako Udalak eta Behemendi elkartek gaurtik aurrera martxan egongo den Bidez bide zerbitzua arkeztu zuten. Juan Kruz Alberdi Behemendi elkarteko kidea eta Gorka Lizarraga Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia izan ziren agerrialdian.

Juan Kruz Alberdi Behemendi elkarteko kidea azaldutako zuzenez, "duela hiru urtekin hona, Andoain, Urnieta eta Hernanin martxan den zerbitzua da eta orain Lasarte-Oriako herritarrentzat ere onuragarria izango da".

Garraio zerbitzua baserrietan bizi diren 65 urte baino gehiagoko edo mugikortasun arazoak dituzten herritarrei zuzendua dago. Behemendiko arduradunak azaldu zuen,

"pertsona hauek bakardadean ez geratzeko ekimen da. Adina edo mugikortasun arazoengatik ezin dira herrira jaitsi erosketak egin edo medikura joateko eta zerbitzu honek behar hori asetzen du".

Gorka Lizarraga Gizarte Zerbitzuetako arduradunak adierazi duenez, Lasarte-Oriako 59 baserrietara eskutitza bidali du Udalak zerbitzu honen berri emateko. Baserri hauek Lasarte-Oriako landa eremuan daudenak dira, Sollanea, Pepenea, Illarraltzueta, Urnieta bidea, Miracampes, Oriamendi eta Zapa, eta hauei eskainiko zaie zerbitzua.

#### Astean zehar

Garraio zerbitzua astean zehar soilik, astelehenean ostiralera goizeko 8:00etatik 14:00etara egongo da martxan eta Lasarte-Oriako erdialdera eramango dituen landa bizi diren herritarrek.

Aurkezpenaz azaldu zutenaz, zerbitzua erabili ahal izateko hitzordua jarri behar da Bidez bide zerbitzua emateaz arduratzen den gidariarekin, kasu honetan Begoña, 626 136 976 telefonoa deituta.

Zerbitzua doako izango da eta pertsona hauen laguntzaileek ere erabili ahaliko dutela aipamarratu zuten prentsaurreakoan.



#### IRAKASKUNTZA

### LOMCE legearen aurkako elkarretaratzea Landaberriin

Ostegunean, LOMCE legea aurrera atera zen Espainiako Legebiltzarrean. Ugariak izan dira lege honen aurka egin diren ekintzak. Esate baterako, Landaberri Garaikoetxean ostegunean bertan, "Guk gure hezkuntza" lelopean ikastolako irakasle, ikasle eta gurasoek elkarretaratzea egin zuten.

#### HITZALDIA

### Errausketa plantaren afera

Gipuzkoako Hondakin Partzuergoak antolatuta, asteazkenean, abenduak 4, 19:00etatik aurrera "Erraustegia. Kedarretik argira" hitzaldia eskainiko da.

Ekitaldiari hasiera emateko "Bukatu da jolasa" ikus-entzuzko laburra proiektatuko da eta jarraian Ainhoa Intxaurrendietak, Kontsozioko lehendakariak, hartuko du hitza.

Hitzaldian, bestetik, azken hilabete hauetan higitzeko horztera ibili diren gaiak jorratuko dira, xehetasunez. Ekitaldiaren amaieran solasaldirako aukera zabalduko da.

#### PENTSIOAK

### Jubilatuaren elkarretaratzea

Biyak Bat elkarteko lagunek ostegun arratsaldean "Pentsioak ukitzen dituenak ez dauku nire botoa" lelopean elkarretaratzea egin zuten Okendo plazan. 50 bat lagun bildu ziren bertan pensioen erreforma dela eta.



## Nikaraguarren festan euria protagonista

Lasarte-Oriako nikaraguar kolektiboak jaialdi kulturazuztua antolatu du asteburuan Udalarekin elkarlanean.

Eguraldiak festa zapuztu egin ziren hein handi batean larunbateko ekintzei dagokionez, baina ez zuten umorerik galdutako euren etxeetatik produktuak plazaratu zituzten herritarrek.

Udaletxeko arkupeetan babestuta, mahai batzuk jarri zituzten euren herrialdeko produktuak herritarrei erakusteko asmoz.

Egia esan, ez zuen arrakasta handirik izan hotza egiteaz gain sekulako zaparrada bota zuelako larunbata eguerdi aldera.

Dena den, goizek hasi

eta eguerdiko 14:00etara arte Nikaraguako produktu tipikoen azoka prestatu zuten Okendo Plazan eta herrian gururen bestelako kulturak badaudela erakusteko behintzat balio izan zuten.

Jarririkoa mahai edo postuetan nikaraguako produktuez gain, Peru eta Kolonbiako ere ikusgai zeuden. Besteak beste haragia, olio, pintxoak eta fruta ikus zitekeen txukun-txukun prestatuta.

#### Ostiraleko jaia

Ostiral gauetan berriz, Abend kafe-antzoekin musika-festa handia egin zuten Abraham Castellón y Los Recogeo Baba taldearen parte-hartze bereziarekin.



Jende asko bildu zen Abendera eta jaia gaueko ordu txikietara arte luzatu zuten batzuek.

Asteburuko ekimenek harrera ona izan zuten herriko nikaraguarren artean, baina eguraldi txarrek festa zapuztu eta ezin izan zuten euren jaialdi kulturala nahiz bezala zabaldu. Hurrengo urtean izan beharko du.



Nikaraguako produktuez gain, Peru eta Kolonbiako ere ikusgai ziren Okendon.



Primeran pasa zuten jalguneko lagunek herritarren aurrean kantatzu, dantzatu, musika joz... Zer nolako martxal!



Jaialdiko argazki guztiak txintxarri.info atarian dauzkazue ikusgai.

## Ezberdinak, eta zer?

Jalgunek jaialdi erraldoia egin du asteburuan

**Urtero bezala, dantza, musika eta koreografiak izan dira protagonista larunbat arratsaldean Jalgunek egindako jaialdian. Desberdinak izateaz harro eta lotsak gaitututa, sekulako festa antolatuta zuten Manuel Lekuonan lehenik eta Okendon ondoren.**

TXINTXARRI

**G**uraso, senide eta lagunekin batera jaialdi handia egin zuten asteburuan Jalgunek. Arratsalde freskoa umore onez, dantzan eta kantuan berotu zuten. Ez zen antzerki, kolore, bideo eta kanturik falta izan.

Kultur Etxeko emankizunean, esate baterako, Semblante Rociero abesbatzak euren rubemkin mix moduko bat eskaini zien eta Jalguneko

koek Pirritx, Porrotx eta Marimotosen "Bizipoza" diskoan datorren Pausoka abestiaren bertsiso berritua dantzatu zuten oholtzara igo ziren lagunekin batera.

Horren ostean, Dinbi Banda batukada buru zutela, Okendorainoko kalejira egin zuten. Gogoratu Dinbi Banda eta Jalgunek urtariraren 3an Kursaallean herriko pailazozen emanaldian parte-hartuko dutela.

Behin kalejira Okendora iritsita, Jalgunerekin elkarla-

nean aritu diren elkarreetako kideek sumendi bana piztu zuten eta litxarrerria gazi eta gozoak banatu zituzten lagun guztien artean.

Goxoki horietako bospaseietan paper zati txiki bat zegoen gordeta eta tokatzen zitzaionak oholtzara igozteko betebeharra zuen. "Saridunak" agertzen joan ziren paper zatia lotu eta esaldi hau josteko: "Lotsik pe, asko gaude, diferentes y qué?".

Azken aldiz pausoka-pausoka aurrera doazela gogorazazi zuten herritarrei, beraiak ongien dakiten bezala, irribaretsu, kantuan eta dantzan. Eguna txokolatada goxoa dastatuz amaitu zuten, ilunabar hotzari aurre eginez.

**MARTE** Krisi garaian, guk ere esfortzua egin nahi izan dugun, gure prezioetan!

**ESTETIKAKO AREGI** Foto depilazioa argi pulsatua

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorpuzko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

**Prezio berriak fotodepilazioan ETORRI eta GALDETU**

**Uistlin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria**

**Gabonetako jostailu guztiak**

Aprobetxatu gure aukera paregabeak

**Josta Mendil**

Karrerako Erreparatu 2. Floor - Berriz  
 Donostia 493 22 76 93  
 Prezio 99 (Donostia)  
 493 58 10 00  
 Avda. Leizola 100 100  
 Berriz 493 22 76 93

# Punta-puntako pintxoak herrian

Asteazken zehar zenbatuko dituzte herritarren bozkak irabazlea zein den jakiteko

Arrakasta handia izan du Lasarte-Oriako lehenengo pintxo lehiaketak. Herritarrak tabernaz taberna ibili dira era guztietako pintxoak dastatzu. Gehiago edo gutxiago, taberna guztiak izan dute jendetza asteburuan eta herritar askok euren bozka eman dute taberna irabazlea erabakitzeko. Aste honetan jakingo da txapeladunaren izena. "Aterpea" Merkatarien elkarteak eta Udalak elkarlanean antolatutako ekimena izan da asteburuko, herriko ostalaritza bultzatzea asmo zuena.

## TXINTXARRI

**A**rkupe, Avenida, Buenetxea, Galiza, Garakari, Ilargi, Insausti, Iñaki, Lasarte, Trumoi, Txampa eta Viña del Mar taberna izan dira Lasarte-Oriako I. Pintxo lehiaketan parte-hartu dutenak.

Giro polita sortu da aste-buruko hiru egunetan taberna hauetan, batez ere larunbat eta igandeko eguerdiko eta ilunabarreko poteoan. Bazkalzera edo afalazera joan aurretik kalitatezko mokaduxo bat hartzeko aprobetxatu baitzuten gehienek.


Pintxoak landuak, maitasunez prestatuak izan dira, Euskal Herriko jatetxe handie-

takoak ziruditen, baina prezio ekonomikoan.

### Irabazlea erabakitzeak

Hiru egunotan herritarrak izan dira epaile lanak egin dituztenak. Jo eta su aritu dira taberna guztietako pintxoaren argazkiak eta deskripzioak zekartzan papertxoan nota jartzek. Nekez ikus zitekeen 8 edo 7 baino nota baxuagorik. Tabernarien lan onaren seinale inondik ere.

Euren bozken bidez sardun gertatu den tabernaren izena aste honetan jakingo da eta 100 eurotako bi bono zozketatuko da bozkatzaileen artean. Taberna irabazleak beriz, "Aterpea" elkarteko urteko kuota izango du sari.



Jendetza bildu du I. Pintxo Lehiaketak, hamabi tabernatan saldu dira pintxoak, Arkupe (goi. / esk.) eta Buenetxean (esk.) kasu.



**ATERPEAko saltokietan gabonetako  
sortak zozkatuko dituzte  
bezeroen artean  
Abenduaren 9tik Urtarrilaren 5 era  
egin Gabonetako erosketak ATERPEAko saltokietan  
eta eskuratu zozketan parte hartzeko txartelak!  
Txartel bat, aukera bat!**

Alone zapata denda  
**ALBA MODA DENDA**  
Aldia konplementuak  
Aritz martaeria  
Amae Zapata denda  
**ANDATZA TABERNA**  
**ARKUPE TABERNA**  
Txanga taberna  
**ABREU BAZARRA**  
**BIDEO LAGUNAK**  
Okela harategia  
Carrefour Express  
Aldia Horta Klinik  
**NOGUES JANTZIGINTZA**  
DONNA KONPLEMENTUAK  
EKAIN LIBURUDENDA  
El Ajar del Bebe  
ARREGUI ELEKTRIZITATEA  
SUKOA BURDINDENDA  
Betele gestoria  
Itarra bixidenda



La Doka Vita  
**LASARTE SYSTEM**  
**XUMABURU LIBURUDENDA**  
Zurich aseguruak  
**MARTINEZ MULTIMEDIA**  
Mazoren denda  
**MAYA LENTZERIA**  
**OLHI HERTZERIA**  
**URRUZOLA HERTZERIA**  
Noaia Bidak  
**LIZARRI OPTIKA**  
**ORBELA EKODENDA**  
**ORMAZABAL LORADENDA**  
Maione perfumaria  
Martin Berastegi jabetza  
**SANTANA INFORMATIKA**  
**ALCAR LEIHOAK**  
**ISU LEIHOAK**  
Ventanas San Miguel  
**ITURBE ZAPATADENDA**  
YOIGO





## IGERIKETA

## Igerilariak bikain Ordizian

Infantilen neguko Euskal Herriko txapelketarako bost marka gutxieneko egin zituzten

**Buruntzaldea IKT-ko igerilariak indartsu jarraitzen dute lehia. Lehengo asteburuan, Errendimendu eta Partehartze Ligako bigarren jardunaldia izan zen eta igerilari gazteek markak hobetzen jarraitzen dute. Esatea baterako, Euskal Herriko bost marka gutxieneko egin zituzten txapelketa honetan.**

## TXINTXARRI

Errendimendu eta partehartze ligako bigarren jardunaldia izan zen azaroaren 23an, Ordizian. Buruntzaldea IKT-ko infantil, junior eta absolutuek parte hartu zuten honetan eta "markak hobetzen jarraitu zuten, pixkanaka forma ona hartzen direla erakutsiz," azaldu du Borja Apeztegia entrenatzaileak.

Igerilari guztien artean taldeko 8 errekor berri eta 38 marka personal berri ezarri zuten.

## Taldeko errekorrak

1ñigo Ibarburuk taldeko bi errekor berri ezarri zituen, 50 m. tximeletan absolutu mailako errorra eta 400 m. estiloan 16 urteko marka ezarri zuen.

Nahia Jie Villamediana eta Ainara Garcia hiruna errekor berri ezarri zituzten.

Nahia Jiek 12 urteko 200 m. libre, 100 m. bizkar eta 400 m. estilo probetako markak hobeto zituen. Azken marka

hau gainera absolutu mailako errekor berria ere bada.

Ainararen kasuan, 200 m. bular probako taldea errekor absolutu berria ezarri zuen eta 13 urteko 100 m. bular eta 400 m. estilo probetako marka berri zuten, Azken proba honetan, 100 m. tximeletako pasean, Ainarak bere marka personala ere hobetu zuen.

## Markak hobetzen

Marka personal eta errekor berri hauetaz gain, igerilari ugari izan ziren marka personalak egitea lortu zutenak.

Haitz Mitxelena 200 m. libre eta 400 m. estilo markak, Jone Vazquezek 50 m. libre eta tximeleta, Janire Berasartek 200 libre m. eta 400 m. estilo probetakoak.

Enara Arruti 50 m. bular-eko eta 200 m. estiloetakoak hobetu zituen, azken honetan lehen pasean 50 m. tximeletako marka hobetuz. Maialen Casadok 200 m. libreko marka hobetu zuen Unai Irigoresak 200 m. libre eta estilo probetakoak, "500 m.-eko



Errendimendu eta Partehartze Ligako bigarren jardunaldian parte hartu duten igerilariak.

BURUNTZALDEA IKT

pasean tximeletako marka ere hobetuz".

Amaita Izagirrek lau marka personal berri lortu zituen: 50 m. eta 200 m. libre, 50 m. tximeleta eta 200 estilo probetan. Leire Carcedok 200 m. libre eta estilo probetako markak hobetu zituen, Nora Irazustak 200 m. libre eta 100 m. eta 50 m. bizkar probetakoak.

Azkenik, Beñat Alkortak 200 m. estilo eta libreko marka hobetu zituen. Proba honetan ere 100 m. eta 50 m.-etakoak ere hobetuz. Jon Ibarгойenek 200 m. libre eta estiloetako markak hobetu zituen.

## EH-ko txapelketa

Egindako proben arabera infantil ugari Neguko Euskal Herriko Txapelketarako sailkapena ziurtatu dutela aipatu digu Buruntzaldea IKT-ko entrenatzaileak. "Gutxienekoak oraindik atara ez badira ere, aurreko denboraldikoak kontutan izanda Ainara Garcia, Nahia Jie Villamediana, Janire Berasarte, Beñat Alkorta eta Jon Ibarгойen txapelketa horretan izango dira".

Bestalde Gipuzkoako gutxienekoetatik oso gertu izan ziren Enara Arruti 50 m. libre proban eta Nora Irazusta 100 m. bizkar proban. "Bi

igerilari hauek ere, EH-ko txapelketan izateko aukera handiak izango dituzte".

Itsaso Tolosa, Mikel Esnal, Naiara Lizaso, Mikel Soto eta Garazi Alkorta oso maila onean aritu ziren. "Marketatik gertu ibili ziren" eta "zenbait hobekuntza lortu zituzten" jakinarazi du Apeztegiak.

Infantil, junior eta absolutuen taldeak abenduaren 14 eta 15ean izango du hurrengo hitzordua, Gipuzkoako Klubuen Kopa. "Txapelketa hau taldeka egiten den txapelketa ederrena izaten da eta urteko zita polifonetako bat," aipatu du entrenatzaileak.

## ERRUGBIA



**Benjamin eta albeinen topaketa Michelinen.** Beltzak Ostadar errugbi taldeak antolatuta, 12 urte arteko gazteetoxek topaketa egin zuten atzo Michelingo berdeguean. Irueheko La Unica errugbi eskola, Gasteizko Gaztedi eta Ordiziako hamarnaka neska-mutikok kirol gogor eta polit honetan lehen urratsak emateko aukera izan zuten. Bai oibalatuari lehen ostikada eta paseak, mota askotako arriketak, estrategiak... Denetik landu zuten. Giroa hotza izanagatik, senide eta lagun asko hurbildu ziren etxeko txikian animatzaera.

## BAZKIDETZA

## Bazkide kanpaina gaur hasiko da

Ostadar SKT taldeak 2014 urteko bazkideza kanpainari hasiera emango dio gaur.

Kirol taldeko arduradunek bazkideei laguntza eskertu eta taldearekin jarraitza animatzen ditu, "kirol egitasmo hau gauzatu ahal izateko haien diru-laguntza ezinbestekoa baita".

Honela, kirol elkarte bazkideza kuota helbideratuta dutenei daturen bat aldatu nahi izanez gero, abenduaren 18a baino lehen egin behar dutela jakin arazi die. Honetarako, Ostadarreko egoitzara hurbildu, Geltoki kalea 4, edo berrara deituaz 943 360 433. Kuota urtarilaren 7an kobratuko da.

Oraindik bazkide ez diren herritarrei ere bazkide egiteko deia egiten die. Hauek edo



Ostadar SKT-ko arduradunak bazkideen artean zozketatuko den oinarriaren.

kuota helbideratu gabe duten bazkideek abenduaren 20ra arte dato inskripzioa egiteko. Hau astelehenean ostiralera arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara, Ostadarreko bulegoan egin ahaliko dute.

## Lizentziak

Bestetik, Ostadar SKT-k men-

diko edo zikloturisten lizentziak tramitatu nahi dituzten herritarrei ohar bat eman nahi die, "urtarilaren 1ean federatuta egon nahi duenak tramitazioa abenduaren 18a baino lehenago egin behar du".

Lizentzien informazioa eta prezioak Ostadar SKT-ko bulegoan daude eskuragarri.

— Agenda —

Osteguna 05, 21:00etan, Arrieskalleta elkarte



**Maila handiko bertso-afaria**

Berto Txapelketa Nagusiko finalaren atarian, Lasarte-Orian "Azken espiña, neurriko espiña" bertso afaria izango da Arrieskalleta elkarte. Maila handiko bertsolariak, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallusek haien trebetasuna erakutsiko dute saio berezi honetan. Arrieskalleta elkarteak, Erra! bertso eskolak eta Ttakunek antolatutako ekimena da.

**Zinea**

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**  
**Osteguna 12, 21:30ean**  
 Okendo Zinema taldearen eskutik, aste honetan "Drive" filma ikusi ahaliko da. Sarrera, leihatilan 4,65 euro; internet bidez, 4,24 euro. Gaztelaniaz.  
**Igandea 15, 17:00etan**  
 Haurrentzako zinea atalean, "Percy Jackson y el mar de los monstruos" filmaz gozatzeko aukera izango dute etxeko txikiak. Sarrera, leihatilan 3,60 euro; internet bidez, 3,18 euro.  
**Igandea 15, 19:30ean**  
 Helduentzako zinea, "Drive" filma eskainiko da. Sarrera, leihatilan, 5,85 euro; internet bidez, 5,30 euro. Gaztelaniaz.

**Antzerkia**

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**  
**Ostirala 13, 22:00etan**  
 Antzerki amateurra Kukuka-rekin elkarlanean programatua. Araba antzerki taldeak "Biba zorriren iturririk" lana eskainiko du. Sarrera, 5 euro.

**Ipuin-Kontalaria**

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**  
**Osteguna 12, 18:00etan**  
 Pello Añorgak ipuinen mundua hurbil-burbitako 4, 5 eta 6 urteko haurrei.

**Erakusketa**

**JALGI KAFE-ANTZOKIA**  
**Abendu bukaera arte**  
 "Santo Tomas" eta "Olentzero" jaialdi-etako argazki zaharren erakusketa izango da ikusgai.

**Lasarte-Oria**

**Musika**

**ZULO ARETOA**  
**Ostirala 06, 22:30ean**  
 Global Funk-ek Makala eta Dj Budin aurkezten ditu.  
**Larunbata 07, 23:00etan**  
 "40 de fiebre", "Talbot", "Aurka", "Bar Remigio" eta "Zona Mortuoria" herriko taldeekin punk eta hardcore gaua izango da. Ostean, Dj Manu 16V-ren rock saioaz gozatu ahaliko da.



**Liburu aurkezpena**

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**  
**Asteartea 03, 19:00etan**  
 Euskararen egunean, Lasarte-Oriako Euskara batzoreak Pello Jauregiren "Euskara eta Gazteak Lasarte-Orian III" liburu aurkeztuko du.

**Hitzaldia**

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**  
**Asteazkena 04, 19:00etan**  
 "Erraustegia. Kedarretatik argira" izenburupean hitzaldia eskainiko du Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak.

**Ikastaroa**

**ARRIESKALLETIA ELKARTEA**  
**Astelehena 09, 18:00etan**  
 Ttakun kultur elkarteak talok egiten ikasteko saioa antolatu du. Izena ematea Ttakuneko bulegoan egin behar da.

**GAZTELEKUA**

**Larunbata 14, 18:00etan**  
 Emagin elkarte 16 eta 30 urte bitarteko emakume gazteei zuzendutako autodafetsa feministak talerra eskainiko da. Emakumeenganako indarkeriaren aurkako ekitaldien barruko ekintza da.

— Herritarren txokoa —

**Danak Kideren jaiotza lehiaketa**

Danak Kide elkarteak, aurtan ere, jaiotzen lehiaketa antolatu du. Hauxe dira parte hartzeko oinarriak: jaiotzak gehienez, 80x60 zm-ko neurriak izan behar ditu eta, batez ere, ez da onartuko hondo sendorik ez duen lanik. Aurreko urteetako lehiaketetara aurkeztutako proiekturik ere ez da hartuko. Jaiotzarekin gutun-azal batean eginen izenak sartu eta azalean parte-hartzaile edota taldearen adina idatzita ematen da. Jaiotzak aurkezteko egunak abenduaren 20 eta 21a izango dira. Danok Kide elkartearen egoitzan Blas de Lezo kaleko 11 zenbakian utzi beharko dira 17:00etatik 19:00etara. Abenduaren 29an saribanaketa egingo da.

**Lasartearra elkarteko barrikotea eta loteria**

Lasartearra elkarteko bazkideei eta lagunei jakinarazten die, urtero antolatzen den barrikoterako izena ematea ireki dela. Barrikotea abenduaren 14an izango da. Elkarteak zuzendartzak jakin arazi duenez, abenduaren 8a izango da izena emateko azken eguna.

Era berean, Gabonetako loteriako txartelak salgai ditu. Hauxe eskuratzeko, elkarte-ko egoitzara, Erribera Kalea 10 atzealdea, hurbildu behar dira interesatuak.

**Marrazki eta margo klaseak**

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jakinarazten du, marrazki eta pintura klaseetan izena emateko aukera dagoela. Klaseak asteazken eta ostiraletan dira, 18:30etik 20:30era Manuel Lekuona kultur-etxeko 2. solairuan. Interesa duten herritarrek gerturatu daitezela klase orduetan.

**Erketz-eko taldeen entseguak**

Erketz EDT eta Erketz-eko Lagunak taldeak lanean ari dira. Erketz-eko Lagunak taldeak asteartetan ditu saioak eta Erketz EDT-ko kideak, berriz ostegunetan. Entseguak Zumaburu ikastetxeko gimnasioan izango dira, 20:00etatik aurrera ohi bezala.

Era berean, 5 urteetik aurrerako haur eta gaztetxoek ere Erketz Txikin dantza egiteko aukera dute.

Azalen edo informazio gehiago eskuratu nahi dutenek 635 746 028 telefono zenbakia jarri du eskura dantza taldeak.

— Hemeroteka —

**Duela 1088 ale**

Lasarte-Orian mahai tenisak zuen tradizioari buruzko artikulua egin zen 1995eko azaroan. Honetan mahai-teniseko taldearen sorrerari eta honek zituena arazoak azaltzen ziren. Michelin elkarteak 1980eko ekainean sortu zuen mahai-tenis taldea, baita eskola ere. Baina 15 urte ostean, elkarteak desagertu eta Lasarte-Oriako kirol elkarteankhartu zuen honen ardura. 1995ean Diego Costa eta Pedro Tapias ziren entrenatzaileak eta 19 jokalariz zuden taldean eta eskolan 10 jokalariz ziren trebatzen ari zirenak.



Guztiek gaur egungo Michelingo kirol guneko pilotalekuan entrenatzen eta gazteek lortutako emaitzak primerakoak ziren. Gizonzkoetara emakumezko maila desberdinetako txapelketetan parte hartzen zuten, hala nola Estatu mailako bigarren mailan edo Gipuzkoako Liga eta Kopan. Helburua "hainbat titulu lortzea eta Lehenengo mailara igotzea" zen. Horretarako 8-10 jokalariz zituzeela jakitera ematen zuten entrenatzaileak. Aurrera jarraitzeko asmoak eta gogoak zituzten, baina arazo ekonomikoak zituen orduan taldeak. Nahiz eta Foru Aldundiak eta mahai-tenis federazioak dirulaguntzak eman, "orain arte, Michelin enpresak diruaren 90a ematen zuten, baina aurtun ez dugu diru iturri hori. Milio bat pezetza inguruko aurrekontua dugu eta bazkideen kuotekin eta mertariaren dirulaguntzarekin estaliko dugu," azaltzen zuten.

**Zuen oharrak jarri, kekak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:** Geltoki kalea, 4 943 366858  
 xintxarri@xintxarri.info

# Liburu aurkezpen alai eta jendetsua

"Sentitu, pentsatu, ekin" helduentzako liburua aurkeztu zuten pailazok larunbatean

**Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazok 25 urte egin dituzte haurrei irria sortzen. Hori dela eta, liburua berezi bat argitaratu dute Elkar-ekin batera, "Sentitu, pentsatu, ekin", eta larunbatean aurkeztu zuten Jalgi kafe-antzekian. Nahiz eta haurrentzako sorpresatxo bat eduki, helduei zuzendutako liburua da oraingo pailazoketarako. Gainera, Durangoko azokan ere izango dira pailazokak. Azaroaren 5ean, ostegunean, 15:00etatik aurrera Ahotsenean aretoan liburua aurkeztuko baitute.**

## TXINTXARRI

LAGUN artean aurkeztu zuten larunbatean Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoketarekin batera, "Sentitu, pentsatu, ekin". Amagoia Mujika liburua idazlea, Antxiñe Mendizabal Elkarreko ordezkaria, Bonbenea txarangako lagunak, Txapas, Aspanegi elkarteko ordezkariak, Pablo Barrio alkatea, besteak beste, izan ziren aurkezpen honetan.

Joxe Mari Agirretxek, Amagoia Mujika idazleak eta Antxiñe Mendizabalek aurkeztu zuten liburua. Mujikak esan zuen liburua ez zuela "urteen bitartez" kontatu nahi, "emozio eta abenturen" bitartez baizik, "eskenatoki atze-

koa" ardatz hartuta.

Agirretxek hastapenetako "arrautz egosi, Olenzero eta Takoloren aurpegi zuria"ren jatorria Lasarte-Oriako eskararen aldeko mugimenduari lotu eta gaur egunera arteko bidea laburbildu zuen.

Barriok bere aldetik, "herrigintza, irrigintza eta harrogintza" aipatu zituen pailazoketarako Lasarte-Oriari eman diotena deskribatzeko.

## 25 urte laburbilduz

Hogeita bost urte igaro dira Takolo, Pirritx eta Porrotx-ek sudur gorriak eta zapata handiak jantzi eta Olenzero egunean bere lehen saioa egin zutenetik.

Takolo, Pirritx eta Porrotx izatek Pirritx, Porrotx eta



Aurkezpenari ekin aurretik talde argazkia atera zuten Pirritx, Porrotx eta Marimototsen lagunek.

Marimotots izatera eta Lasarte-Oriako Olenzerotik ilargi eta patata-tortilara pasa dira. Ibilbide honetan taldea garatu eta milaka bizipen izan dituzte.

Amagoia Mujika kazetariak idatzitako "Sentitu, pentsatu, ekin" liburua dugu horren guztiaren lekuko.

Irripidean, saiotik saioara idatzitako liburua da eta honetan sudur gorriak alde batera utzita Aiora, Joxemari eta Mertz ezagutzeko aukera dago.

## Laguntzaileak

Pailazoketako Aiora, Joxe Mari eta Mertzek urte hauetan guztietan egin dituzten hainbat lagunen hitzak ere aurki ditzakegu liburu honetan.

Unai Muñoa, Jon Maia edo Uxue Alberdi bertsolarienak, Pablo Barrio Lasarte-Oriako alkatearenak, Josu Martinez zinegilearenak... Lorea Agirre edo Koldo Campos idazleek ere haien espe-

rientzia kontatzen dute.

## Txikiak sorpresa

Liburua helduei zuzendua dagoen arren, txikiak ere sorpresa ederria izango dute liburu honetan, pailazoketaren bost bideo klip jasotzen dituen DVDa baitakar liburuak.

Era honetara, etxeko txikiak ere gozagarri izango dute pailazoketaren argitalpen berria.

**NOBEDADEAK** Pirritx, Porrotx eta Marimotots

**Itaipora CD-liburua:**  
20 abentura eta 20 gaiturak.

**Bizirik bizitara ipuinak:**  
Duska bitartekariak kontatuko 4 ipuinak.

**Sentitu, pentsatu, ekin! DVDa:**  
25 abentura iruditzen diren abentura ipuinak.

**Sentitu, pentsatu, ekin! liburua + DVDa:**  
Pailazoketaren 25 urtearen bitarteko irratia berriraketa.

eskaerak  
www.kabiporreta.com

Kabiporreta

Olea ibarribidea, 10  
Brunet Eraikina 5, E-4  
20140 LASARTE-OIÑA  
Tel.: 943 368 404